

POESIA

**ALDERANTZIZKO**

**ARROSA**

Bitxilorez betetako ibarrean  
Amak nire hazia zuen ipini  
Eta haren laztan eta hitz goxoen artean  
Gutxinaka hasi nintzen hazten.

Lore izan aurretik entzuten nituen txiribitak  
Eguzkiari buruz berbaka  
Ta azkenik, lore bilakatzean,  
Dirdira etengabea zuen urrezko platertxo hori  
Aurkitu nuen aurrez aurre.

Eztia bezain gozoa,  
Eguzkiaren izpi batek zeharka jo zidan  
Eta une hartan ohartu nintzan  
Soilik bere pausuak segituz  
Zoriona aurkituko nuela  
Nire bizitzan.

Ilunabarra etorri zen,  
Haren aldean Ilargia,  
Ta biek in batera,  
Nere desiorik sakonena:  
Guztiek Eguzkia miresten zuten moduan  
Ni ere mirestea.  
Ta nahi horrekin buruan  
Nire lore-hostoak murgildu ziren  
Gabaren bakardadean.

Laster etorri zen egunsentia  
Ta hura bai ustekabe atsegina  
Lehen lore arrunta zegoen tokian  
Arrosa liluragarria esnatu zenean!

Munduko sentsaziorik atsegina hura,  
Arrosak ez zekien zer zen tristura!  
Polita, azkarra, umila eta apala;  
Basabitxilore guztien ideala!

Halere, eta besteen lilura bezala,  
Poz hori ez zen izan  
Bizitza osorako gauza.  
Azkenean sentitu zen Eguzki, bai,  
Baina milioika eguzkiloreren presiopean zegoen  
Eguzki asturugaitza.

“Hazi bat baino ez nintzen,  
Zuek bilakatu ninduzuen arrosa!

Ta gainera, ez arrosa arrunta...  
Baizik eta arantzak bere buruari begira dituen arrosa”

Zion liliak.

“Desio madarikatua!

Eguzki madarikatua!

Behin izan nintzen hazia izatera bueltatu,

Eta inor ohartu gabe

Jarraitu nahi dut egiten nire bizia.”

Eta besterik gabe,

Etorri zen gaua.

Ez ordea ilargia, ezta izarrik ere.

Soilik gaua,

Bere iluntasun isilaren ondoan.

Eta arratsaren erdian,

Beltz bilakatu zen arrosa,

Bere oroitzapenetan itota,

Gertatutakoa inork ulertu barik.